ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko irailaren 23a, asteazkena • 109 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## BASTIDAKO UDALA

**Bastidako Alkatearen 631 ebazpena, 2026ko irailaren 15ekoa, UE7-EI unitatearen xehetasun azterketari hasierako onespena ematen diona**

Ekogi-Gicovi merkataritza sozietatearen ekimenez, Bastidako UE7-EI unitatearen irabazizko aprobetxamendua duten lurzatien antolamendu xehatua eta kudeaketa sistema zehazteko, xehetasun azterketa bat onesteko eskatu da, bai eta kudeaketa sistema ere, zeina ituntze sistema izango baita aurrerantzean.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 98.1 eta 145. artikuluetan xedaturikoarekin bat etorriz, espedientea jendaurrean jarriko da hogei egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn eta Diario de Noticias de Álavan argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita.

Jendaurrean dagoen bitartean, espedientea aztertu nahi duen ororen esku egongo da, egoki deritzen alegazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzan.

Iragarki honek interesdunei jakinarazteko balioko du, baldin eta ezin izan bada entzunaldiko izapidearen jakinarazpen pertsonala egin.

Epe hori igarotakoan alegaziorik aurkeztu ez bada, dokumentua behin betiko onesteko bideratuko da, bidezkoa baldin bada.

Etenda geratzen dira Bastidako EB7-EI unitatearen arearako onespenak, baimenak eta lizentziak.

Etete horien eraginak behin betiko onespena emandakoan iraungiko dira eta, edonola ere, hasierako onespena ematen denetik urtebeteko epean.

Bastida, 2026ko irailaren 15a

*Alkate-lehendakaria*
*DANIEL GARCÍA RUÍZ*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.09.23 05:49:03 Z